

31

EKARTZEA MEREZI DU

Azken urteotarf badirudi zalantzak sortu direla zenbait idazleren artean *merezi izan/ukan* aditzak duen erregimenaz. Horrela, tradizioan ongi oinarritua dagoen *ekartzeta merezi du* formaren ondoan hasi dira sortzen eta hedatzen *ekartzeak merezi du* bezalakoak. Esan behar da halakoak berriak direla, azken urteotan sortuak eta zenbait gramatikariren nola-halako gogoeten ondorio. Ez da bereizketa hori gertatu leku batzuetan modu batera esaten delako, eta beste batzuetan, ostera, bestera. Ez, badirudi gramatikaren itxurazko logikaz adizkiaren subjektu-ergatiboa izatearen ondorio gisa sortua dela.

Orotariko Euskal Hiztegia hartuz gero, ehunka perpaus jasoak daude *merezi* aditza dutenak:

*Iñaxiok ez du merezi.
Jainkoak laguntzea ote du merezi?
Hark hiltzea merezi du.*

Adibide horiek bezalakoak dira gehienak. Hala ere, puntu honetaz zerbait esan nahi bada, 'nork' espresuki nahiz implizituki esan gabeko perpausak aztertu behar dira, alegia, beste ergatiborik ez dutenak. Hau, esate baterako, nola esan beharko litzatekeen jakiteko: (1a) bezala ala (1b) bezala?

- (1) a) *Merezi al du jaiotzea?*
b) *Merezi al du jaiotzeak?*

Esan bezala, *OEH*-n ageri diren gehienak ergatiboa agerian dutenak dira. Badira, hala ere, ergatiborik gabeak, nahiz hauctan ere beti gelditzen den duda ez ote dagoen testuinguruan ergatiboren bat isildua edo izkutatua. Hauetan, esate baterako:

Orain akordatzia ez al du merezi? (Udarregi, *Udarregi Bertsolaria*, 131).

Merezi leuke miña ondotik ateratia (Mogel).

Ez dau merezi duten kasurik egitia (Fray Bartolome, *Euskal Errijetaco Olgeeta...*, 166).

Bera danugatik, beste gabe merezi du, guziak...bere serbizioan enpleatzeu (Guerrico-078).

Iduritzen zait merezi duela orotara zabaltzia (Astolasterrak, 065).

Emen aitatzea merezi duena (Lardizabal, 213).

Lenengo mallan ipintzea merezi duena (Lardizabal, 485).

Etzun merezi zuk argi egitea (Orixe, *Aitorkizunak*, 380).

Ori abonatzia ez al du merezi (J.M. Barandiaran?-162).

Bada, hala ere, absolutiboaren aldeko zeharkako beste froga bat ere: aditz izena, sarritan, partitiboan erabiltzen da:

*Ez du merezi kontatzerik.
Ez du merezi zabarkerian orain galtzera uzterik.*

Baina, jakina denez, partitiboa, testuingurua nolakoa den, absolutiboaren tokian ager daiteke, ez ergatiboarenean:

Ez da andrerik mintzatu.

**Ez du gizonik hitz egin.*

Andreak ez du gizonik ikusi.

**Andrerik ez du gizona ikusi.*

Hortaz, badirudi onartu behar dela esaldi hauetan ageri den nominalizazioa *merezi ukan* aditzaren osagarri zuzena dela, eta ez subjektua. Batzuetan garbiri ageri da hori, ergatibo dena bistan delako:

Zuk bai merezi duzula jan gabe gelditzea.

Hark ez du gurekin etortzea merezi.

Merezi ukan aditzarekin osaturiko esaldietan, hala ere, ez da nahitaezkoa ergatiborik agertzea. Batzuetan agertuko da, beste batzuetan ez:

Argudio txepel hōrrek ez du erantzutea merezi.

San Ferminetara joatea merezi du.

Hau ez da harriztekoa, bai baitaude beste zenbait aditz *ukan* hartzen badute ere ergatibo barik erabiltzen direnak:

Euria egin behar duela ematen du.

Iduri du laster sendatuko zarela.

Balio izan aditza ere hor dago, nahiz honek bi erabilerak onartzen dituen:

Zer balio du tematzeak?

Ez du balio orain etxea konpontzen hastea.

Beraz, tradizioaren eta herriaren erabileraren arabera, ez da inolako zalantzarik nominalizazioa absolutiboan (edo partitiboan) erabiltzen dela, baina ez ergatiboan:

Ez dakit merezi duen erantzutea.

Mereziko ez du, bada, guziok elkartzea!

Ez du merezi horregatik haserretzea.

Merezi ote du horrela bizitzea?

Hau guztia kontuan hartuta, hau da Euskaltzaindiaren erabakia: *merezi izan/ukan* aditzaren osagarria aditz izen bat dezan (*joatea, ikustea, egitea*) erabil bedi absolutiboa, eta ez ergatiboa, horrela erabiltzen baitu herriak bere eguneroko hizkeran eta horrela erabili izan baita euskararen tradizioan ere:

Joatea merezi du.

**Joateak merezi du.*

Ikastea merezi du.

**Ikasteak merezi du.*

(Euskaltzaindiak, Donostian, 1995.eko apirilaren 28an onartua)